Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2019ko ekainaren 11, asteartea — 109 — Martes, a 11 de junio de 2019

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## MUGIKORTASUNEKO ETA LURRALDE ANTOLAKETAKO DEPARTAMENTUA

**Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusia**

*«Gipuzkoan bizikleta garraio modu gisa erabiltzea sustatzen duten irabazi asmorik gabeko elkarteentzako diru laguntza programa»ko 2019ko diru laguntzak ematea.*

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako foru diputatuak, 2019ko maiatzaren 31an, ondoko foru agindua eman du:

«Diputatuen Kontseiluko 2016ko martxoaren 8ko Erabaki bidez onartu ziren «Gipuzkoan bizikleta garraio modu gisa erabiltzea sustatzen duten irabazi asmorik gabeko elkarteentzako diru laguntza programa»ko oinarri arautzaileak eta diru laguntzen 2016ko deialdia (2016ko martxoaren 16ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 51. zk.).

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako foru diputatuaren 2019ko otsailaren 14ko 029/2019 foru aginduaren bidez 2019ko deialdia onartu zen.

Epe barruan hiru eskaera jaso dira. Eskaerak Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusiak aztertu ditu eta 2019ko maiatzaren 27ko datarekin balorazio txostena igorri du. Bertan, epe barruan aurkeztu diren eskaera guztiak aztertu ditu, eta oinarri arautzaileetan zehaztutako balorazio irizpideen araberako lehentasun ordena bat ezarri ondoren, diru-laguntza bi eskatzaileri ematea proposatu du, lortutako puntuazioaren arabera. Txoten hori, Batzorde Ebaluatzaileari igorri zaio.

Batzorde Ebaluatzailea, efektuetarako eraturik, 2019ko maiatzaren 30an bildu da eta egindako ebaluazioa igorri zaio Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuko foru diputatuari, oinarrietan zehaztutakoaren haritik, eskatutako laguntzak ematea ala ukatzea ebatzi dezan.

Oinarrietan ezartzen denaren arabera, deialdiaren ebazpena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da, 2015eko urriaren 1ko 39/2015 Legeak, Administrazio Prozedura Erkidearenak, 45.1 artikuluan ezarritakoaren arabera. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du eta, argitalpen egunaren biharamunetik hasita, jakinarazpena egintzat joko da lege-ondorio guztietarako.

Gauzak horrela, eta Balorazio Batzordearen proposamenaren arabera, Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako foru diputatuak

EBAZTEN DU

*Lehenengo.* Diru laguntzak ematea «Gipuzkoan bizikleta garraio modu gisa erabiltzea sustatzen duten irabazi asmorik gabeko elkarteentzako diru laguntza programa»ko 2019ko deialdiaren barruan, ondoren adierazten diren elkarteei eta zenbatekoaz:

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE MOVILIDAD Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

**Dirección General de Movilidad y Transporte Público**

*Concesión de subvenciones del «Programa de Ayudas destinadas a asociaciones sin ánimo de lucro que promuevan el uso de la bicicleta en Gipuzkoa como medio de transporte» para el 2019.*

La diputada foral de Movilidad y Ordenación del Territorio, con fecha de 31 de mayo de 2019, ha dictado la siguiente orden foral:

«Mediante Acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 8 de marzo de 2016 se aprobaron las bases reguladoras para la concesión de las subvenciones del «Programa de Ayudas destinadas a asociaciones sin ánimo de lucro que promuevan el uso de la bicicleta en Gipuzkoa como medio de transporte» (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 51, de 16 de marzo de 2016).

Mediante Orden Foral 029/2019 de la diputada foral de Movilidad y Ordenación del Territorio de 14 de febrero de 2019 se aprobó la convocatoria del año 2019.

Se han recibido en plazo tres solicitudes. La Dirección General de Movilidad y Transporte Público ha elaborado un informe de valoración de las solicitudes con fecha de 27 de mayo de 2019 estableciendo una prelación de acuerdo a los criterios de valoración fijados en las bases reguladoras, y proponiendo otorgar subvención a dos de ellas por el importe que corresponde a cada una en función de la puntuación obtenida. Dicho informe ha sido remitido a la Comisión Evaluadora.

La Comisión Evaluadora, constituida al efecto en fecha 30 de mayo de 2019 ha dado traslado de la evaluación realizada a la diputada foral del Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio, para que, tal y como se establece en la bases reguladoras, resuelva respecto a la concesión o, en su caso, denegación de las ayudas solicitadas.

Conforme a lo previsto en las bases de la convocatoria, y al amparo de lo dispuesto en el artículo 45.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común, la resolución de la convocatoria será objeto de publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, sustituyendo dicha publicación a la notificación individual y entendiéndose efectuada ésta a todos los efectos legales desde el día siguiente a dicha publicación.

En su virtud, y de acuerdo con la propuesta de la Comisión Evaluadora de las subvenciones, la diputada foral de Movilidad y Ordenación del Territorio

RESUELVE

*Primero.* Conceder las ayudas correspondientes a la convocatoria 2019 del «Programa de Ayudas destinadas a asociaciones sin ánimo de lucro que promuevan el uso de la bicicleta en Gipuzkoa como medio de transporte» por los importes y a las entidades que se señalan a continuación:

EK\CV GAO-I-2019-03742

| *Entitate onuraduna*<br>*Entidad beneficiaria* | *Aurrekontua BEZa gabe*<br>*Presupuesto, sin IVA* | *Puntuazioa*<br>*Puntuación* | *Emandako dirulaguntza (€)*<br>*Subvención concedida (€)* |
|---|---|---|---|
| Kalapie, hiriko txirrindularien elkartea | 10.200,00 | 62 | 7.500,00 |
| Asociación de Comercio, Hostelería y Servicios de Irun "Mugan" | 11.118,80 | 58 | 7.250,00 |

*Bigarren.* Xedatzea 14.750,00 €tako guztizko gastua adierazitako onuradunen alde eta zenbatekoaz 1 0510.110. 481.00.01 2019 kontu sailaren kargura.

*Hirugarren.* Ezestea jarraian adierazitako diru laguntzak:

*Segundo.* Disponer a favor de las entidades beneficiarias un gasto total de 14.750,00 € con cargo a la partida 1 0510. 110.481.00.01 2019.

*Tercero.* Desestimar las solicitudes que se indican a continuación:

| *Eskatzailea / Solicitante* | *Ezeztearen arrazoia / Motivo desestimación* |
|---|---|
| Goiena Komunikazioa Taldea Kooperativa Elkartea | Oinarri Orokorren 3.1 klausula ez betetzea (GAO 2016/03/16)<br>Incumplimiento clasula 3.1 de las Bases Reguladoras (BOG 16/03/2016) |

*Laugarren.* Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko agintzea.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete, interesatuek, zuzenean, Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazpenaren biharamunetik hasita.

Hala ere, aukera dute foru diputatuari horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo presuntziozko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke».

Donostia, 2019ko ekainaren 3a.—Segundo Díez Molinero, idazkari teknikoa. (3742)

*Cuarto.* Ordenar la publicación de la presente orden foral en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

La presente orden foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer contra la misma recurso contencioso–administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante, las personas interesadas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante la diputada foral de Movilidad y Ordenación del Territorio, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente».

San Sebastián, a 3 de junio de 2019.—El secretario técnico, Segundo Díez Molinero. (3742)

EK\CV GAO-I-2019-03742